

Lanak aurkezteko epea:

irailaren 16tik urriaren 31ra

Sari banaketa

Azaroaren 28an



Informazio gehiago:

arnasagara.eus



ARNAS *etik*

III. BIDEO SORMEN LEHIAKETA ARNASGUNEETAKO IKASLEENTZAT

10-16 urte dituzue?

Aktore lanak edo bideo grabazio eta edizioa gustuko badituzue, hauxe da zuen aukera. Erakutsi zuen gaitasunak. Parte hartu ARNASETIK lehiaketan.

Sortu zuen istorioa!

arnasagara.eus



Sormena eta bideogintzarekin

istorioak kontatzeko hamaika modu dituzue.

ARNASETIK lehiaketa bat baino askoz gehiago da... erronkak dira, sariak dira, lagunekin, ikaskideekin edo zuen kabuz sortzeko aukera da, esperientziak dira eta ikasteko parada da, baita zuen herriko errealitatea, naturaltasunez eta harrotasunez gainontzekoei erakusteko modua ere.

Ongi etorri ARNASETIK bideosormenaren esperientziara!

3 kategoria

LH 5-6 Txokorako bidea

Seguru gaude zuen herrian mila txoko berezi eta kuttun daudela. Aukeratu bat edo batzuk eta kontatu zerk egiten dituen berezi, norekin eta noiz joaten zareten...

(Gehienez 2 minutu)

<https://labur.eus/REKhT>

DBH 1-2 Prestatu nirekin

Urte guztia noiz iritsiko zain egoten zareten egun handi hori zein da? Herriko jaiak, inauteriak, azoka bereziaren eguna... Erakutsi zerk egiten duen berezi, nola prestatzen zareten...

(Gehienez 2 minutu)

<https://labur.eus/REKhT>

DBH 3-4 Bosteko katea

Beste norbaiten larruan jartzeko aukera izango bazenute, zuen herriko nor izan nahiko zenukete eta zergatik? Galdera honi erantzunez osatu bosteko katea.

(Gehienez 2 minutu)

<https://labur.eus/REKhT>



Lehiaketa bat baino askoz gehiago

4 sari - 2000 € saritan

LH 5-6	DBH 1-2	DBH 3-4	PUBLIKOAREN SARIA
500 €	500 €	500 €	500 €

Sari bakoitzak 500 €-ko balioa izango du, honakoetan gastatzeko nahi duzuen moduan:

